



Gizartearen esku

AUTODETERMINAZIOA esaten zitzaion lehen eta orain erabaki eskubidea. Baina gauza bera dira? Batzuentzat bai eta besteentzat ez. Asier Blas EHUKo irakasleak argi apur bat jartzen du ARGIAko bere blogean (*Sezesio prozesuak konparaturik (III): lidergoez eta erabakitze eskubideaz*): “Laburbilduz eta sinplifikatuz, autodeterminazioa berezko eskubide bezala definitzen da lurralde edo nazio baten lurraldearentzat. Berriz, erabakitze eskubidea autoeratu egiten den subjektu berria da. Autoeraketa hori ez da zertan egin behar nazio baten gainean, baizik eta borondate demokratiko baten gainean”.

Gure Esku Dago ekimena ekitaldi ugari egiten ari da erabaki eskubidearen gainean eta ekainaren 8an Iruñea eta Durango lotuko dituen pertsona batekari begira. Horietako batean aritu ziren joan den astean, Bilbon, Gemma Zabaleta, Juan Jose Ibarretxe eta Floren Aoiz, hirurak Euskal Herriak erabaki eskubidea indarrean jartzeko duen eskubidearen defentsan. Sarean da ikusgai mahainguru osoa (ARGIA honen 46. orrialdean duzu erreferentzia zabalagoa), eta ideia interesgarri ugari jorratu zituzten, baina merezi du Zabaletak azpimarratutako ideia batean sakontzea: gaur egun posible da erabaki eskubidean aurrera egitea, 2006an Loiolako elkarrizketetan Euskal Herriko hiru familia politiko nagusiak –EAJ, PSOE eta ezker abertzalea– heldu ziren gaiari buruzko kontsentsu batera eta hura berreskuratu behar da. Hau da, ez gabiltza ezinezkoak edo oso gaitzak direnei buruz, ez, duela zortzi urte lortutako akordioari buruz baizik.



Jesus Egiguren eta beste zenbaitekin batera, Patxi Lopez lehendakariaren gobernuaren sailburu izan zen Zabaletak gutxiengoan defenditzen ditu PSEren ortodoxiatik at diren ideiak, baina une batez PSOE osoaren ordezkari gisa ari zirenek onartu zituzten Loiolan, Jesus Egigurenekin batera baitzegoen Ferrazeko konfiantza zuen Rodolfo Ares.

Mariano Ferrer mahai-ingurua- ren moderatzaileak jarri zion ziria Zabaletari, galdetuz ea bere alderdiarekiko baikor izateko zer zirritu antzematen zuen, kontuan hartuta duela gutxi Patxi Lopezek esaldi honekin definitu izan duela aipatu eskubidea: “Erabaki eskubidea Estatuak ematen dizkizun eskumenak indarrean jartzea da”. Espainiako Konstituzioaren erreforman jarri zuen erantzuna Zabaletak, Europako hauteskundeak eta PSOE bere primariak gainditu ondoren, abiarazi beharko litza-tekeena.

Horrekin guztiarekin batera Kataluniako erreferendum deia datorrenez, ikusi beharko da nola eragiten duen PSOE Konstituzioa erreformatzeko duen asmoe-

tan. Eta olatu handi hori gero eta hurbilago, erabaki eskubidearen ideiak, nahitaez, gero eta indar gehiago hartuko du euskal gizartearen ere, ziklikoki gertatu ohi den moduan, lehenago autodeterminazioaren ideiarekin eta geroago, funtsean Ibarretxe Planarekin, erabaki eskubidearen forman.

PSOEko Ramon Jauregiren-tzat gauza bera dira bi kontzeptuak eta bide batez, Berri-ko elkarrizketan (2014-5-4) adierazitakoaren arabera, Zabaletari ere argi erantzuten zion: “Erabakitze eskubi-

deaz ari garenean autodeterminazio eskubideaz ari gara. Galdera bada PSOE Konstituzioaren erreforman, erantzuna ezezkoa da (...) Helmuga guztiak dira posible, baina ez kontsulta baten bidez”. Iragan azaroan Alberto Lopez Basaguren EHUKo katedratikoak ere argi uzten zuen LARRUNEN, Quebec eta Kataluniarri begira: 1998ko Kanadako Auzitegi Gorenak argi utzi zuela Quebec ez zuela independente izateko eskubiderik, baina Kanadako gobernu behartua zegoela Quebecarekin negoziatzera, baldin eta hango gehiengo argi batek independentziaren alde eginenez gero.

Euskal gizartearen hauek guztiak jorratu direnean, gaiarekiko ekimena alderdi politikoaren esku egon izan da batez ere, horrek dituen muga guztiak. Oraingoz sinbolikoki bada ere, ekainaren 8tik aurrera gizartearen ere bere protagonismoa hartuko du, gaia, funtsean eta batez ere, gizartearen esku egoteko modukoa baita ■

